



Tolosako Leidor areto berritua, ikuskitzunezarako prest

HOBEKUNTZAK ▶ Akustika,
erosotasuna eta eszenatokia
zaindu dituzte berritze lanetan

EGITARAUA ▶ Adin guztientzako
ekitaldiak antolatu dituzte; etzi,
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa ▶ 3



Ezker-eskuin: Andoni Iturzaeta, Jokin Bildarratz, Rocio Peña, Mario Sangali eta Anjel Yañez, atzo, aurkezpenean. I. GARCIA

VILLABONA ▶

**Txermin, 60
etxebizitza
berrien
kokagune**

Horien artean, 18
babes ofizialekoak
izango dira ▶ 5

TOLOSALDEA ▶

**Uli Udaltalde
21 proiektua
abiarazi
dute jada**

Herritarren iritzia
jasotzen ari dira ▶ 6

LEITZA ▶

**Gauero ur
mozketak
dituzte
herritarrek** ▶ 7

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

IV. Hitza Argazki Lehiaketa, udako irudi onenaren bila

Sari ederrak eskuratuko dituzte
lehenengo bi argazkilari sailkatuek ▶ 2

Zure etorkizunak kontatzen du

| | |
|--------------|-----------------|
| Zure lana | Zure lagunak |
| Zure familia | Zure bikotea |
| Zure kultura | Zure etorkizuna |

MATRIKULA ZAITEZ

Berri pasalekua, 50 - Donostia
Tfn. 943 314 900 - www.cebanic.com

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

OSTALARITZA ETA TURISMOA

- Zehar arloa
- Sukaldaritza
- Osojente eta okigintza
- Ostalar arloa
- Baita agentziak
- Turismo-informazio eta merkataritza

INFORMATIKA

- Informatika-sistemien administrazioa
- Informatika-aplikazioen garapena
- Sistema informazioen onakapena

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Bazarretako merkataritza
- Merkataritza-kudeaketa eta marketina
- Merkataritza

ADMINISTRAZIOA

- Administrazio eta finantza (A eta DE)
- Merkataritza
- Administrazio-kudeaketa

LANBIDE NASTAPENEND IKASTURTEA

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

ERREDAKZIOA

Uda bukatzeaz, lanean hasi behar. IV. HITZA Argazki Lehiaketako lehenengo argazkiak jasotzen hasi da egunkaria jada. Hilabete hauetan zehar asko dira kanpora joan direnak, edota paisaia ederrez gozatu dutenak. Irudi, leku eta une horiek argazki batean hilezkortu nahian, errealitatea hutsal geratu arren, oroitzapenak dakartzan zerbait da.

Hori baloratuko da bidalitako argazki guztietan: kalitatea, sormena, ideia, lekua, unea... Oraingoan, argazkilari bakoitzak irudi bakar bat bidali ahal izango du. Internet bidez (tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) edo gutun bidez (Araba etorbidea 5, atzea) bidali daitezke egunkarira.

Egunkarian egunero erredakzioan jasotako argazkiak argitaratuko dira. Kopurua mugatua izango denez, lehenbait lehen bidaltzea komeni da. Denak egunkarian agertuko ez badira ere, webgunean denak ikusteko aukera izango da.

Hala, behin argazki guztiak eskuetan dituenean, Argazki Lehiaketako parte-hartzaile guztien artean, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK izendatutako epaimahaiak zortzi finalistak aukeratu ditu. Hurrengo pausua, irakurleek emango dute, izan ere, zortzi horien artean onena bozkatu beharko dute, irabazlea zein den erabakitzeko, alegia.

Telefonoz nahiz Internet bidez eman daiteke botua, baina harpidedun bakoitzeko, bat. Hala, hau ongi egiten dela ziurtatzeko, bozka emateko garaian harpidedun kodea eskatu da.

Saria, hoberenentzat

Laugarren Argazki Lehiaketa dugu dagoeneko, eta oraingo honetan ere, sari ederrak eraman ahal izango dituzte irabazleek. Esaterako, lehenengo postuan geratzen denak, lagun batekin, Euskal Herriko landa-eremu batean asteburu eder bat igarotzeko aukera izango du. Bestetik, bigarren sarituak, Plaza Etxeberri jatetxean, bi lagunentzako afaria eramango du. Bestalde, bozka ematen dutenen eta parte-hartzaile guztien artean HITZAKO materiala zozketatuko da.

Azken edizioan, Aste Santue-

Uda honetako irudirik esanguratsuenaren bila ariko da oraingoan ere irakurlea

Aurreko edizioetako parte-hartzearen arrakasta eta harrera onaren ondoren, IV. HITZA Argazki Lehiaketa hasi da berriro dagoeneko



III. Hitza Argazki Lehiaketako finalistetako bat: Plaiaundin, Irunen (Txingudiko parke ekologikoan) aterata dago. IBAN ORMIZABAL

takoan hain zuzen ere, Iñaki Gomez tolosarrak eraman zuen lehen saria. Honek Villabonako Bidaide bidaia-agentziak eskainitako bidaia zozkari batekin gozatu ahal izan zuen.

Oso arrakastatsua izan zen III. Argazki Lehiaketa hau, 78 lagunek hartu zuten parte, eta guztira 122 irudi lehiatu ziren. Era guztietakoak izan zirelarik: naturaren edertasuna islatzen zuten paisaiak, herri eta hirietako toki eta eraikin tipikoak... Bada, oraingoan ere ez izan zailtzarrik eta bidali zuen aurtengo udako oportetako erretratuak.

IV. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ OINARRIAK

EPEAK

- ▶ Argazkiak bidaltzen hasi zaitezke dagoeneko; hilaren 21era bitarte hartuko ditugu erredakzioan.
- ▶ Hilaren 24ean aukeratuako zortzi argazki finalistak argitaratu dira.
- ▶ Urriaren 1ean irakurleek aukeratuako argazki irabazlea argitaratu da. Bozkatzeko epea hil honen 28an amaituko da.

BALDINTZAK

- ▶ Argazkiek udako oportetakoak behar dute izan.
- ▶ Argazkiak paperean, diapositiban, eta formatu digitalean onartzen ditugu.
- ▶ Argazki digitalek, gutxienez, ezaugarri hauek izan behar dituzte: 8 zentimetroko



HITZAKO materiala. E. EZEIZA

zabalera eta 250eko bereizmena.
▶ Jarri behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Horrez gain, argazkia non eta noiz egin den adierazi behar da, eta zer ikusten den ere labur idatzi.

- ▶ Jasotako argazkiak arbihoan gordeko ditugu, eta HITZAK behar dituenean argitaratu ahal izango ditu.
- ▶ Jasotzen diren argazki guztiak sartuko dira lehiaketan, baina HITZAK jasotako lehen 50 argazkiak argitaratu ditu.
- ▶ Argazki guztiak webgunean izango dituzue ikusgai.

SARIA

- ▶ Irabazleak asteburu bat igaro ahal izango du Euskal Herriko landaeremu batean.
- ▶ Bigarren saridunak berriz, nahi duenarekin, Plaza Etxeberri afaltzeko aukera izango du.
- ▶ Gaintzeko partaideen artean HITZAKO materiala zozketatuko da. Botoa ematen dutenen artean ere zozketa zabalak egingo dira.

ZABALA
DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industriegunea, 18 • BELAUNTZA

KULTURA ▶
NEREA URBIZU

A hazten zailak izango diren pelikula eta ikuskizunen testigu izan ziren Leidorreko eserleku gogorrak.

Leidor aretoko aurkezpena izan zen atzo eguerdian. Jokin Bildarratz alkatea, Mario Sangali eta Rozio Peña arkitektoak, Angel Yañez, Kultur batzordeko kidea eta Andoni Iturzaeta Kultur zinegotzia izan ziren aurkezpenean.

Hainbeste ekitaldi eta filma hartu izan dituen areto ezagunak, Leidorrek hain zuzen, batez ere, 3 ataletan hobetu du, akustikan, konforlean eta eskenatokian. Alkatearen esanetan, «neurritz, apaltasunez egin da, dirua ere zainduz; kalitatea, berriz, oso ona da». Horrekin denak ados izan ziren, «lan txukuna» egin dutela azpimarratuz. Erritmo handian egin dela ere gogoratu zuten, izan ere «azaroan hasi ziren lanak eta urtea egin aurretik amaitutzat jo daitezke».

Aretoko berritze lanak bukatuta daude; platoon agertzeko denok gogoratzen dituzuen erdiko eskailera ezagun horiek ez daude orain: bi bazterretatik sartuko dira hemendik aurrera Tolosako areto mitikoenera.

Pezetatan, lan honek guztiak 550 milioi inguruko kostua izan du, 300 milioi Foru Aldundiak eman dituelarik, eta beste guztia, Tolosako Udalak.

Ahotsak eta doinuak, garbi

Sangali arkitektoak esan zuen bezala, «akustika hobetzeko hainbat material berezi erabili dira; horrez gain, itxura aldatu egin zaio goiko aldeari, maskorra edo oskolaren forma emanez; esan bezala, akustika hobetzeko egin da».

Egurra da hormetan ikus daitekeen materiala. Palkoak ere berritu dituzte. Hala, hiru daude alde bakoitzean, eta hemendik aurrera izango duen akustika egokiaz gehiago gozatu ahal izango da. Eserleku gorriak ahazten zailak izango dira, orain jarri dituzten berde atseginetara ohitzen hasteko.

Erosotasunaren bila

Eserlekuei dagokionez ere, handiagoak dira, berdeak eta grisak, eta ilerren arteko zabalera 10 zentimetro handitu egin dute. Horregatik, lehenago 1.100 pertsonentzako lekua bazen, orain 867rentzako izango da. Horien artean, 22 eserleku, egindako sei palko berrietan banatu dituzte.

Lehenengo lerroan dauden 18 eserleku bereziak dira, mugimendu arazoak dituztenentzat, eta «biztanlegoaren batez



Leidor berria, doinu eta irudi ahaztezinen lekuko

Erosotasuna, akustika ona eta eskenatoki aproposa bilatzea izan dira eraberritzearen helburu garrantzitsuenak



Leidorreko eserlekuak handiagoak eta atseginagoak dira. I. GARCIA



Sei palko egin dituzte: hiru alde bakoitzean. Bertatik, hobe ikusi eta entzun ahal izango da. I. GARCIA

besteko zabalera handiagoa duten pertsonengan pentsatuta».

Eskenatokia handitu egin dute, aurrekoaren tamaina eskasa gogora ekarri. Argi kontuak ere hobetu dituzte, lehenago «ez baitzegoen leku gehiegirik horretarako ere».

Zinea ikusteko aukera izango da, nahi denean automatikoki gorde edota jaisten den 12x6 metrotako pantaila batean. Aurreko aretoaren teknologia bera erabiliko dute ia bere osotasunean filmak jartzeko, baina «aldaketa nabarituko dela» ziurtatu dute teknikoek.

Teknologia puntakoa jarri dute bai argitasunari dagokionez, eta baita akustikari dagokionez ere. Kanpoaldetik ere eraikinari beste itxura bat eman diote, batez ere, Gipuzkoa Plazatik ikusten den aldeari. Izan ere, hau ere arkitektoentzat erronka bat izan da. «Kanpoaldeko itxura pobrea zen, negargarri samarra, eta zertxobait aldatu egin dugu».

Ezin ahaztu, bestalde, aire egokitu duela, bai eta bero-gailua ere.

Egitarau oparora

Ostiralean dagoeneko bisita garrantzitsua egingo dute Leidor berrira: Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren emanaldia izango da, Gilbert Vargaren zuzendaritzapean. Gaur ere bi laburmetraia izango dira, doan, 19:30etik aurrera «jendeak ikus dezan nola dagoen Leidor».

Kepa Junkera hilaren 15ean izango da ere, eta hurrengo egunean Oskorri & Kukubiltxo. Hil honen 22an, berriz, 1200 kilometro izenenko dokumentalera aurkeztuko dute. Guztiok zuzendutako egitaraua izango da, beraz. Leidor berrian, gure betiko Leidor.

iragarki laburrak ▶
SALGAI

Pisua. Pisu berria salgai Ordizian. Sukaldea, egongela, 2 logela, 2 komun, terraza eta trasteroarekin. 49.000.000 pezeta. Deitu 686 95 90 64ra.
Furgoneta. Furgoneta salgai. California 2,5 TDI. Extrak. 50.000 km. 2003koa. 685 75 17 43..

LANA

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. 677 32 99 34.
Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmnetatua. 635 74 52 91.

JAIK ▶

Herriko jaietan murgiltzear dira Alkizan eta Zizurkilen

Alkizan gaur hasi eta igandea bitarte, eta Zizurkilen bihartik astelehenera arte adin guztiei zuzenduriko askotariko ekitaldiez gozatzeko aukera izango da



Iker Goenagak Alkizan eskainiko du emanaldia. Zizurkilen Pirritx eta Porrotx izango dira ikusgai. IMANOL GARCIA

INIGO TERRADILLOS

Abuztua herriz herri eta jairik jai igaroko zuten herritar askok, eta irailean sartuak bagaude ere, oraindik izango da horretarako aukera, hainbat herritan jaiak ospatzeke baitituzte. Horren adibide dira Alkiza eta Zizurkil.

ALKIZA

GAUR

20:00. Oilategitik aldizkariaren 6. alearen aurkezpena.

BIHAR

16:00. Haur jolasak.

Ondoren. Toka Txapelketa.

21:00. Barrikotea.

Ondoren. Agurtzane eta Ion Elustondoren eskutik erromeria.

ETZI

12:00. Meza Nagusia.

14:00. Jubilatuen bazkaria Otsamendi jatetxean.

Ondoren. Beterenoen arteko XV. Pelota Txapelketaren finalak.

20:30. Herri afaria Ostatu jatetxean.

23:00. Lizaso, Peñagarikano, Egaña, Lujanbio, Irazu eta Colina bertsoarietako jaialdia.

Ondoren. Kupela taldearekin erromeria

Atsedendian. Gau jolasak.

LARUNBATA, HILAK 9

10:30. Herriko umeentzako birrindulari lasterketa eta toka txapelketa.

18:00. Herri kirol saioa herriko gazteen artean, Ion Zabalaren eta Izaskun Mendizabalen oroimenez.

Ondoren. Sagardo dastaketa egingo dute.

23:00. Herri kirol saioa aizkolariekin eta harrijasotzaileekin.

Ondoren. Etxabe Anaiekin erromeria.

IGANDEA, HILAK 10

10:00. Meza Nagusia.

10:15. Pelota partidak: Gazteen

arteko XVI. Txapelketako finalak.

16:00. Pitxoi tiraketa Erniope elkarteak antolatutik, bazkideentzat eta herritarrentzat.

17:00. Asto lasterketa herrikoia mozorrotuta.

Arratsalde osoan. Gaztelu puzgarriak plazan.

19:30. Iker Goenagaren emanaldia.

Gauean. Imuntzo eta Belokiren erromeriarekin jaiet amaiera.

ZIZURKIL

BIHAR

11:30. Haurren txupinazoa Atxulondo kultur etetik.

Ondoren. Pirritx eta Porrotx Joxe Arregi plazan.

17:00. Futbol txapelketa Danena futbol taldearen zelaian.

20:00. Txupinazo nagusia Atxulondo kultur etetik.

21:30. Koadrilen afaria Joxe Arregi plazan, Egarri tabernak eskainita.

23:00. Gladys Mercado y sus Charros mariachi taldearen emanaldia.

ETZI

11:00. Haurrentzat parkea Joxe Arregi plazan: karts autoak eta puzgarriak.

13:30. Marrazki Lehiaketako sari banaketa. Lehiaketan parte hartu duten marrazkiak ikusgai egongo dira goizean zehar Joxe Arregi plazan.

17:00. Buruhandiak.

18:00. Valporqueroko Arranoak. Txori eta

harrapakinen erakusketa

Aurrera plazan.

19:30. Mac Jeara's Band jazz

taldea Joxe Arregi plazan.

00:00. Eskamatxin eta Betagarri taldeen kontzertua.

LARUNBATA, HILAK 9

11:30. Meza Nagusia.

12:00. Sardina eta sagardo dastaketa Urkamendi elkartearen eskutik.

12:00. Buruhandiak.

12:30. Motozerra erabiliz egur taila Joxe Arregi plazan.

14:00. Herri bazkaria.

17:00. Blusen arteko pentatloia. Koadrilek 5 jokotan hartuko dute parte, besteak beste, 19:30ean asto karreran.

Mozorro gaua. Gai librea.

23:30. Zizurkilgo Break Dance jaialdia.

23:30. DJ Syr.

00:00. Break Dance erakustaldia: Team Rockers, Resistance eta Gipuzkoako Break dantzariak.

01:30. Acido C eta Funk musika.

IGANDEA, HILAK 10

09:00. Diana Loatzo musika eskolako txistularien eskutik.

11:00. Zizurkilgo VI. Kros Herrikoa eta hamaiketakoa.

12:00. Buruhandiak.

12:30. Ardi txakurren erakusketa Iturralde baserri inguruan.

17:00. Halterofiliako XIV. Elbarrena Trofeoa Joxe Arregi plazan.

17:30. Erromeria.

17:30. Kalejira.

18:30. Joxe Arregi plazan

dantza taldeen emanaldia.

19:30. Tapia eta Leturia.

23:00. DJ Bull.

ASTELEHENA, HILAK 11

12:00. Lore Lehiaketa Joxe Arregi plazan. Lehiaketan parte hartuko duten herritarrek

loreak 11:30erako eraman behariko dituzte Joxe Arregi plazara.

12:30. Jubilatuek antolatutako jolasak adin guztientzako: toka eta igela.

14:00. Jubilatuen bazkaria.

17:00. Buruhandiak.

18:00. Panta Rehi haur eta helduentzat txobxongiloak Joxe Arregi plazan.

20:30. Ruper Ordorikaren

kontzertua Joxe Arregi plazan.

hitza

Harpidedunen
txokoa

Hitzako 3 harpidedun tolosaren 750. Urteurrenaren ospakizunen baitan burutuko den kontzerturako bina sarrerekin saritu nahi ditugu:

Coti eta Bide Ertzean

Irailak 9, Larunbata • 22:00etan • Tolosako zezen plazan



Deitu zozketan parte hartzeko 943 65 56 95 telefono zenbakira eta emaiguzu zure harpidedun kodea.

ALEGIA ▶

Aralar Institutuko aurkezpen eguna etzi egingo dute

Alegiako Aralar Institutuko 2006-2007 ikasturtearen aurkezpen eguna etzi egingo dute, 10:00etatik 12:00etara. Aurkezpena joateko bailarako herrietatik autobusa 09:30ean aterako da. Iraileko ordutegia 08:30etik 14:30era izango da.

ANOETA ▶

Lo egiteari buruzko hitzaldia Alkartasun

Anoetako Alkartasuna Biltokian hitzaldia eskainiko du gaur Jose Luis Martinek. Aulas Kutxak antolatuta *Adineko pertsonen ondo lo egin beharra* du izenburua hitzaldia eta 18:30ean hasiko da. Bestalde, Naiara Ortega podologoaren bisita izango dute gaur 14:30etik aurrera.

TOLOSA ▶

Ikasturtea gaur hasiko dute Laskorainen

Laskorain Ikastolan gaur hasiko dute DBH eta Batxilergoko ikasleek ikasturtea eta bihar Haur Hezkuntzakoek eta Lehen Hezkuntzakoek. Lehenengo egunetik autobus eta jangela zerbitzuak funtzionamenduan egongo dira eta Haur Txokoak 07:30ean irekiko ditu atek.

IRURA ▶

Anoetara joateko autobusa bihartik ikasleentzat

Anoetako Ikastolara joan behar duten Irurako ikasleentzat bihar jarriko dute berriro martxan autobus zerbitzua, 08:45ean, Aizpurua jatetxearen ondoan.

VILLABONA ▶

Herri Batzarra egingo dute bihar udaletxean

Agenda 21 prozesuaren baitan, Herri Batzarra antolatuko dute bihar Villabonako udaletxearen Areto Nagusian, 19:30etik aurrera.

VILLABONA ▶ HIRIGINTZA

60 etxebizitza egingo dituzte Txermingo aparkalekuan

Foru Aldundiak onartu du Villabonako Udalak bidalitako Hiri Antolaketako Arauen Aldaketari buruzko txostena

IMANOL GARCIA

Villabonako Txermin auzoan 60 etxebizitza egiteko egitasmoa aurrera doa. Foru Aldundiak onartu du Villabonako Udalak bidalitako Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa txostena. Txermin auzokoari dagokien gain, Amasako herriguneari eta herriko eraikuntza ordenantzetako alderdi zehatz batzuei buruzko aldaketak ere onartu ditu Aldundiak.

Onartutakoaren arabera, beraz, Txermin-2 izeneko eremu berria etxegunerako lur eremu hiritargarri gisa sailkatu dute, 11.303 m² guztira. 9.486 m² etxegunerako lur eremu gisa



Txermin auzoko aparkalekua; bertan egingo dira 60 etxebizitzak. i.e.

kalifikatuko dituzte eta 60 etxebizitza eraikiko dituzte bertan, horietako 18 babes ofizialeko

ak. Gainerako 1.817 m²-ak hiri parkea egiteko erabiliko dituzte. Oraindik, baina, beste hain-

bat pauso egin behar dituzte proiektua guztiz gauzatzeko.

Amasari dagokionez, hilerria handitzeko aurreikusitako lur erreserbaren kokapena aldatu egingo dute; hala, ekialdeko lurren ordez iparraldean eta mendebaldean kokatutakoak gordeko dituzte, batik bat, osasun eta higiene baldintzak hobetzeko xedez. Era berean, beste etxebizitza bat egin ahal izango da Villa Alfonsinan.

Azkenik, eraikuntza ordenantzei dagokien, batez beste 50 m²-tik beherako azalera duten etxebizitzak kopuruari buruzko zehaztapenak aldatzen dira. Villabonako erdigunean egongo partzela egituraren zehaztapenak malgutu egingo dituzte eta teiltatupeko solairuak azalera erabilgarri gisa hartuko dira azpiko etxebizitzari lotuta badaude.

Era berean, Foru Aldundiaren erabakian adierazten da etxegune berrietako hirigintza plangintza egiterakoan kalitate akustikoko helburuak bermatu beharko direla. Horretarako, inguruko errepideen trafikoa kontuan izanda beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira.

TOLOSA ▶ HIRIGINTZA



Laskorain kalean hasi dituzte lanak

Erredakzioa ▶ Hasi dituzte lanak Laskorain kalean. Edukiontzia lur azpian jartzeko obrak eta urbanizazio-obra ere egingo dituzte bertan. Obrak direla eta zenbait aldaketa egin dituzte, bai trafikoa aldetik eta baita aparkalekuen aldetik ere. Laskorain kalean, obrek irauten duten artean, zati bat itxi egingo dute. Bestalde, Paulo Rekondo kaleak norabide bikoitza du, bai zona horretara sartzeko bai handik ateratzeko ere. I. GARCIA

TOLOSALDEKO KOMUNIKABIDE ENPRESA BATEK KUDEATZAILEA behar du (Erref.: 06-THK)

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (justiaren ekonomia, finantzak, fakturazioa, harpidetza eta diru iturri berrien sustapena, giza baliabideak, diru laguntzak, ...), eragile ezberdinekin izan beharreko harremanen kargu egingo den pertsona balen bila gabilta.

Eskatzen da:

- Kontutan hartuko da Kudeaketa-Administrazio arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritua izatea eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskara maila ona.
- Izera dinamikoak, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna
- Gida baimena eta autoa edukitzea

Interesa dutenek curriculuma, irailaren 13a baino lehen, erreferentzia zehaztuz, helbide honetara bidali:

Helbide elektronikoa: gizabaliabideak@jarduna.net
Posta Helbidea: Jarduna, S.L. (Giza Baliabideak Saila)
Martin Ugalde Kultur Parkea. 20140 - Andoain

hitza

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN praktikak egin nahi?

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioan lizentziaturiko Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendua

Urritik abendura aritzeko lanaldi erdiz Kredituak baliozkotuko dira

Curriculum-a bidali helbide hauetara, irailaren 13a baino lehen: Araba etorbidea, 5. atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

AGENDA 21 ▶

Uli Udaltalde 21 proiektua martxan da Gaztelun, Orexan, Leaburun eta Lizartzan

Orexan elkarrizketa gehienak egin dituzte dagoeneko eta gainontzeko herrietan udazkenean zehar egingo dituzte, herritarren ekarpenak jasotzeko

ERREDAKZIOA

Uli Udaltalde 21 osatzen duten Tolosaldeko lau udalerrietan, hau da, Gaztelun, Leaburu-Txaraman, Lizartzan eta Orexan, Agenda 21 prozesuaren diagnostikorako beharrezkoak diren datu objektibo gehienak bildu dituzte jada. Ekintza egitaspora igaro aurretik, ordea, datu subjektiboak behar dituzte; hau da, herritarren iritzia ere txertatu nahi dela diagnostiko hauetan. Hori egin ahal izateko, elkarrizketak egingo zaizkie herritarrei. Hala, herritarren ekarpenekin —datu subjektiboekin— diagnostikoa amaitu eta bigarren fasera igaroko litzateke Agenda 21 proiektua. Aipatu bigarren fasea ekintza plana burutzea litzateke, hau da, herritarren parte-hartzearekin batera, plangintza iraunkorra definitu eta abian jartzea.

Esan bezala, Uli Udaltaldearen Agenda 21 proiektua lehenengo fasean dago une honean, datu subjektiboak biltzeko herritarrek elkarrizketatzen, alegia. Orexan elkarrizketa horien gehiengoa egin dituzte jada; beste hiru udalerrietan, berriz, irailetik aurrera ekingo diote lan honi. Ondoren, diagnostikoak aurkezteko Herri batzarrak egingo dituzte, herritarrek ekarpenak egiteko aukera izan dezaten berriro ere. Herri batzarren ondoren, Udalean aurkeztuko dute batzarrean jardundakoa.

Tokiko Agenda 21 datozen urteetan herrrian egingo diren ekintzak definitzeko balio



Leaburu Uli Udaltaldeko partaide da, Gaztelu, Lizartza eta Orexarekin batera. HITZA

duen prozesua da. Ekintza horiek, arlo ekonomiko, sozial, kultural etabarrekoak izan daitezke. Horregatik, herritarren ikuspegia ezagutzea eta aintzat hartzea behar-beharrezkoa da ekintza planak lantzeko garaian. Hori dela eta, edozein herritarrek prozesuari buruzko informazio gehiago nahi izango balu, edo diagnostiko-

rako baliagarriak izan daitezkeen ekarpenak egin nahiko balitu, bi bide ezberdin erabili ditzake.

Alde batetik, Tokiko Agenda 21eko teknikariarekin, Garbiñe Olaberriarekin, jar daiteke harremanetan, asteke egun batean egoten baita herri bakoitzean. Beraz, udaletxera joanda berarekin harremanetan

jarri daitezke herritarrek. Nahi izanez gero, posta elektronikoki bidez ere egin daitezke ekarpenak, honako helbidera mezu bidalita: agenda21@tolomendi.net

Bestetik, udazkenean herri guztietan jarriko dituzten buzoiak erabili ditzakete herritarrek, buzoia hauetan idatzizko proposamenak utziz.

IBARRA ▶



Diru-laguntza banaketa. HITZA

Sendi Ekintzaren laguntza Sahararrei

Saharako uholdeek sorturiko kalteak gutxiagotuko ditu San Bartolome Rifak

MADDI SOROA

Urtero moduan, San Bartolome Rifa burutu zuen Sendi Ekintzak, Ibarako plazan, abuztuaren 21ean. Ohitura jarraitzeko asmoz eginiko ekimen honek bosgarren urtea ospatu du aurten; bildutako 600 euroak Miren Barberiak jaso zituen Tolosaldea Sahararekin Elkartearen izenean, joan den ostiralean.

Esan bezala, Saharako herrialdeak 600 euroko laguntza jasoko du eta urte hasieran gertatutako uholdeek eragindako kalteei aurre egiteko bideratuko dituzte. Izan ere, zoritxarrez, 12.000 familia baino gehiago etxerik gabe geratu ziren, era berean, eskola, ospitaleak eta beste hainbat eraikin txikiu zituztelarik uholdeek.

Tolosaldea Sahararekin Elkartek Sendi Ekintza eskertu nahi izan du emandako laguntzarengatik.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohitzza.nfo



LEITZA ▶ GIZARTEA

Urik bai ote da?

Lehengo hilaz geroztik gauetan ura kentzen dute Leitzan, herriko ur-biltegiak eguneko kontsumoari aurre egiteko uraren maila berreskura dezan

JAIONE ASTIBIA

Lehorra doa uda. Azken egun hauetako eguraldi eguzkitsu honek ia salbespen dela, lainopean egon bagara ere gehienez, eta fresko edo hotza ere izan dugularik —santiburtziotan gautiro berde samarrak ez al zituen egin?—, euria eskapa, ihesi ibili da Leitzaldean: lainotuta bai, baina ur tantorik bota ez. «Laino honek baztarrak lehertzeko bestetarako ez du balio», esan ohi dute lehengoek.

Eta horixe gertatu! Eta, noski, horrek ondorioak eragiten ditu kanpoan: arbolak hostogorritzen hasita daude, istorrak ere halatsu, baratzak... In-guruetan udatzeko koloreak gailenduz doaz dagoeneko.

Baina eta, urak? Iturriek, errekek, ahortuta daude edota

ur-arrasto mehar bat besterik ez daramatzate. Gainerako kontuek zuzenean nekazariei gehiago eragiten dietela iriztita ere, ur-eskasiak denei: zeinen erraza den etxeko txorota ireki eta urari joaten uztea, bestetan erreparatu gabe. Eta, ez bali-tz tantorik ere aterako?

Leitzan, lehengo hilaren azken aste aldetik, gauetan ura kendu egiten dute etxeetan, ur-hornidura moztu egiten dute: gauean, 23:00etan kendu eta hurrengo goizean, 07:00etan bota.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK jakin ahal izan duenez, eguneko leitzarrek egiten duten ur-kontsumoari aurre egin ahal izateko, alegia, ur-depositutik egunean zehar ateratzen den ur kantitatea berriz beteko bada, irteerak itxi eta betetzen uztea derrigorrezkoa izan da:



Ur depositua, artxiboko irudi batean, Arkixkil auzoan dago. JAIONE ASTIBIA

«Kontsumoa asko handitu da, baina jasota dauden iturrietatik, urak jeitsita dauden arren, gauetan, depositua betexetzeko moduan bai; gaeuz ez baita

ia kontsumorik izaten, normalean; baina ohartu ginen, bete beharrean hustutzen jarraitzen zuela», azaldu diote HITZARI. Esan dutenez, Sarrion paper-

fabrikak ere, bere ur-gordailuarekin nahikoa ez duenean, herrikotik hartzen duela, eta horrek ere eragin egiten diola uraren mailari; baina hori gertatu ez denean ere, ur-gordailuak ez omen zuen herriko ur eskariari aurre egiteko adinako mailarik berreskuratzen. Horrela, konturatu dira, kontsumoaz gain, uraren hodi-sarean isuriak, «eskape handi samarrak» daudela.

Batez ere isuriak

Aditzera eman dutenez, «ur ihesi handi bat aurkitu dute eta konpondu ere bai», baina «gehiago badaude eta horiek ez dira bilatu». Lurpeko hoditerien matxuren bilaketan lan egiten duten hainbat lagun ari dira horretan eta «aste honetan robota ekartzeko dute, hoditerian barrena sartu, ea berak eskapeak bilatzen dituen», azaldu dute.

Beraz, lehorte dela, ixurriak direla, arreta gabeko kontsumoa dela, ura, ez dagoela soberan; eta alferrik galdu behar ez litzatekeen ondasun preziazko dela. Ez?

LEITZA ▶ GIZARTEA



Lasarteren irudiari burua hautsi zioten

J. Astibia ▶ Manuel Lasarte auzoan, Leitzan jaiotako bertsolari horren izena daraman auzoan, berak jaioterriari egindako bertsoak agerian dituen oinarriaren gainean, bere irudia dago; zegoen. Izan ere, festetako goiz batean, Lasarteren irudia bururik gabe agertu zen, hautsita. Balentriakerietan ere aritu ziren bakarren batzuk, festa girotik aterata, herriko kultur ondareari erasoka. Biharamunean burua jaso omen zuten. J. ASTIBIA

HEZKUNTZA ▶

Bihar dute aurreneko eskola eguna bi herrietan

J. ASTIBIA

Bihar beteko dira eskolak ikasleak Leitzan eta Areson ere. Batzuk gogotsu, besteak muker antxean, bihar dute 2006-07 ikasturteko aurreneko eguna.

Dena den, aurreneko 15 egunak, goizetik bakarra eginen dituzte; egokitzapenaren mesedetan, udako azken arratsaldeez gozatuz.

iragarki laburrak ▶



Anoeta. Duplexa, estreinatzeko garajearekin.

Baraibar. Borda 2.000 m²-ko lur-sailen. Berritua.

Belautza. Bifamiliarra, bi solairu eta 270 m²-ko lur sailarekin.

Belautza. Bi pabiloi, bulegoak, bainugelak, eta abar.

Berastegi. Familia bakarrarentzako baxeta, 3.500 m²-ko lur sailarekin.

Donostia. Antiguu, Eskolta Real. Etxebizitza eraberritua, kanpoaldera.

Hormilla (Errioxa). Najeratik 3 kilometrora. Etxebizitza adosatua,

lorategiarekin, terrazarekin eta igerilekuarekin. 160.000 euro.

Alkiza. Familia bakarrekako baxeta, 4.000 m²-ko lur-sailarekin, hiru solairukoa. Bakoitzak 120 m² ditu.

Irura. Laskibarreko zonaldean, 3 logelako etxebizitza, garajearekin.

Tolosa. Zumalakarregi. 150 m²-ko etxebizitza, egoera ezin hobean, garajea aukeran.

Tolosa. Pablo Gorosabel, erakuntza berriko azken apartamentua,

65 m² erabilgarri.

Tolosa. Pablo Gorosabel, logela

bakarrekoko apartamentua, garajea hartzeko aukerarekin.

Tolosa. Zabalarreta, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea,

terraza, bainugela, komuna, trastelekua eta garaje itxiarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel, 50m²-ko bulegoa alokeran.

Tolosa. Errementari kalean, 3 logelako atikoa, egongela, sukaldea eta bainugela. Berritua.

Tolosa. Belate pasealekuan, trasteleku berriak, argia, aire erazgailuak. 9.480 eurotatik.

Tolosa. Maituna lokal zaharrea, 15 garage itxi berri salgai aurki; 30 m²-tik hasita, sarrera karga-jasogailuarekin. Erakuntza laister.

Tolosa. San Esteban. 100 m²-ko kanpoalderako etxebizitza, konpondu beharra.

Tolosa. Araba etorbidean, 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea, komuna, bainugela,

terraza, 25 m²-ko lokala eta garajea.

Tolosa. Aldaba, bi etxebizitzetan banandutako baserria, konpondu beharra.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Leidorren 19:30ean, laburmetraien emanaldia: Nacho Vigalondoren *07:30 de la mañana* eta Asier Altunaren *Topeka*.

Tolosa. Zine-klubaren bilera, jubilatuei zuzenduta, 19:00etan, Kultur Etxean.

Tolosa. Udaberri dantza taldean izena eman dutenen zerrendak ikusgai daude Igarondo igeilekuaren ondoko lokalean.

Tolosa. Alpino Uzturre mendi elkarteak irteera antolatuta du Pirinioetara, hil honen 9an eta 10ean. Izen-ematea Gudari kaleko 5. zenbakian edo 943 65 27 89 telefono zenbakian. Prezioa: 40 euro.

Tolosa. Etzi inauguratuko duten Leidor aretoan izango den Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzerturako sarrerak salgai daude, 12 euroren truke, Leidorreko leihatilan, 18:00etatik 20:00etara, Servikutxa kutxazainetan, www.kutxa.es helbidean eta 943 00 12 00 zenbakian.

Tolosa. Tolosako Musika Eskolak kontrabaxu ikastaroa antolatuta du. Izen emateko epea etzi amaituko da. 10:00etatik 13:00etara eman daiteke izena musika eskolako bulegoan. Argibide gehiago: 943 651 593 zenbakian.

Zizurkil. I. Baserriko Argia Beka antolatuta du Udalak, baserrietako ondarea jasotzeko asmoz. Bekak sei hilabeteko iraupean izango du. Informazioa, udal bulegoetan edo 943 69 24 95 zenbakian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leizta. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Azpiroz, M.L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.

IRRATIA

Txolarre irrati

(107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren erreposoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Añoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
22:00-23:00. *Street*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Bartzelonatik Korsikara


HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Bartzelonako (Katalunia) eta Korsikako argazkiak heldu zaizkigu oraingoan; jarraitu zuenak bidaltzen!

'FRUTA FESTA' ▶

Jon Ander Garate Lapazaga (Tolosa).

Jon Ander eta bere lagun koadrila Bartzelona aldean izan dira uda honetan. Argazkiari *Fruta festa* izenburua jarri dio tolosar honek eta gisa honetara azaldu digu Katalunian bizi duten opporraldia:

«Abuztuan egun batzuk jai genuela-eta Katalunia aldera jo dugu koadrilakoek. Denetarik ezagutu dugu, kostaldea batik bat. Kriston beroa izan genuen egun guztietan eta Bartzelona hiriburuan jasandakoa ikaragarria izan zen. Gorputzarentzat hobereana garagardoa eta fruta izan ziren egun horietan. Argazkian, hain zuzen, Ranblatan zegoen Bouqueria merkatuko fruta eskaintza zabal zen. Tentagarria, ez?».



ZONZA ▶

Olga Gurrutxaga (Tolosa).

Olga Gurrutxaga tolosarra Korsikan izan da aurtengo abuztuan. Honakoa azaldu digu: «Zonza herritik gora ibilaldia egiten ari ginela ur-jauzi bat topatu genuen eta haren ondotik honako ikuspegi ikusgarri hauetaz ohartu ginen; atzean Korsikako mendi altuak ageri dira. Oso irla ederra da Korsika eta merezi du hara joateak».

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...